

# Taula gainean

**Felipe Juaristi**

"Sei pertsonala autore bila"  
Luigi Pirandello  
euskaratzailea: Josu Zabaleta  
Alberdania / Elkar, 2003

Duela gutxi ikusi nuen berriro Matias zena izeneko filma. Marcello Mastroianik egiten zuen Matiasen papera filma horretan, eta beti iruditu zait Pirandelloren hori zeluloidean politagoa, antzokian baino. Alderantziz gertatzen da ordea, Sei pertsonaia autore bila izenekoarekin, orain euskaraz, Josu Zabaletaren itzulpenari esker, irakurri ahal duguna. Esperimentazio lana da, eta esperimentazio hitza ahoskatu ahala burura datorkit harako txiste hura: "Ba al dakik —galdetzen zuen batek, Hungarian hain zuzen— sozialismoa XX. mendean egin den esperimenterik handiena dela? Eta besteak erantzuten zion: hala bada, zergatik ez dute esperimendu hori animaliekin egin?" Gure arteko famatu batek ere esaten zuen, lotsarik gabe esan ere, esperimentuak limonadarekin egin behar zirela, ez dakit zer esan nahi zuen zehatz, baina erositako prezioetan saltzen dut. Antzerkia, betidanik izan da, esperimentazio-toki, berak duen plastikotasunagatik, berak duen irekitasunagatik, izan ere, antzerki testu bat ez da sekula ixten, egin daitezke aldaketak, eta batzuetan sakonak, egin daitezke pertsonaiez beste, eta behin baino gehiagotan egin da, alda daitezke giroa, pertsonaien mamia aldatzeke, alda daitezke pertsonaien izaera, antzerki lanaren muina jotzeke.

Antzerkiak hori du; horregatik da, generorik zaharrenez gainera, publikoarentzako erakargarriena. Ahozkotasunari eusten dio, eta antzezleak taula gainean mugitzen, hitz egiten, keinuka ari direnean, ikuskizunak zerbait du magikoa, mirarizkoa, poetikoa. Onenean hori; okerrenean, ikusleek txistuka eta esku-oin zartaka har dezakete lana, baina hori ere mirarizkoa da gaur egun, jendeak erantzuteko ahalmena galdua baitu gehienetan, ikuskizun zenbaitetan izan ezik: futboleak alegia. Pirandelloren hau klasikoa da. Nik askotan ikusi dut, eta ikusi izan dudak bakoitzean aurrekoaren aldean desberdina iruditu zait beti. Desberdina, ez ederragoa edo itsusiagoa; desberdina. Baina hala behar duela iruditzen zait.

*El Diario Vasco, 2004-03-05*